

Donibane-Lohizune hiriaren bisita

Turismo Bulegotik abiatuz

Planoa

Luis XIVgarrenaren plaza, Luis XIVgarrenaren etxea eta Herriko Etxea, portua, Errege-Alaba edo Infantearen etxea, Errepublika karrika Errege-Alabaren eta Mazarin karriketatik, hondartza, Garat karrika, eliza, Gambetta karrika, Thiers etorbidea, J.A. de Agirre lehendakariaren oroitarria eta "Mende Berri", Telesforo de Monzonen etxea.

-----0-----

Berriki atxemanak izan diren aztarna arkeologikoez erakusten dute **Paleolitiko garaian** jendeak bazirela Errobi ibarrean eta kostaldean, hala nola Bidarten, Getarian eta Donibane-Lohizunen eta hori **lohia** izanik ere ; funtsean, Donibane-**Lohizune** herriaren euskal izenak garbiki erakusten duen bezala.

Orain Luis XIVgarrenaren plazan gaude.

1 - Luis XIVgarrenaren etxea eta Herriko Etxea

Donibane-Lohizuneraren historia biziki lotua izan da **1660ko ekainaren 9an** gertatu zenarekin : Frantziako Luis Erregearen ezkontza bere lehengusua zen Maria Teresa Espainiako Erregearen alabarekin.

Hori zen Espainiako gerlaren bukaera adieraziko zuen Pirinioetako Itunaren baldintzetarik bat.

Frantziako Erregea eta bere gortea Donibane-Lohizunera etorri ziren. Erregea hilabete bat baino gehiago egon zen **Johannis de Lohobiague** zenaren etxean, xuxen errateko : 1660ko maiatzaren 8tik ekainaren 15a arte. Johannis de Lohobiague armadore aberats eta indartsu bat zen eta **1643an** eraiki zuen etxea. Orduan, plaza honetako **etxe bakarra** zen. Geroztik etxe hori **Luis XIVgarrenaren etxea** deitzen da.

Honen eskuinean, **Herriko Etxea** edo **Udaletxea**. Oraintxe jakinen duzue zergatik eraikia izan zen toki honetan, jendeak, belaunaldiz-belaunaldi kondatzen duen ixtorio honi esker.

Bere etxea eraiki eta urte zenbait geroago hil zen Johannis de Lohobiague, alarguntsa gazte bat uzten zuela, **Maria-Sol** deitua. **1654ean** auzapez hautatua izan zen **Jean de Casabielhe** jaunak alarguntsa gaztea emaztetzat galdetu zuen, hartaz amoros baitzen. Baina Maria-Solek ez zuen onartu ! Beraz haserre bizian eta egin zion laidoaz mendekatzeko, erabaki zuen, **1656an**, Herriko Etxea toki honetan eraikitzea. Horrela, bista eder guziaz kenduz, Maria-Solek ez zituen gehiago Ziburu eta Urdazuri erreka ikusten ahal !

Luis XIVgarrena Erregearen ezkontza berriz aipatuz, jakin behar da Herriko Etxea toki garrantzitsua izan zela. Gortearentzat antolatuak izan ziren dantzaldi eta dibertimenduak Herriko Etxeko gela nagusian iragan ziren.

Orduan asmatua izan zen erran-zahar batek hauxe dio : **Donibane Lohizune Paris ttikia, Ziburu bere arraindegia eta Baiona bere zalditegia...** Alabaina gorteak Donibane Lohizunen lo egin zuen, janaria Ziburutik ekarri zuten eta zaldientzat aterpea Baionak eskaini zuen.

2 – Portua

Donibane-Lohizunereren historia lehen-lehenik **itsasoari** eta **arrantzari** lotua da. **Bikingoek** beren arrantza teknikak eta itsas-ontziak egiko moldeak erakusti omen zizkieten Euskaldunei. Baina, IXgarren mendetik goiti, **euskal arrantzaleak ospetsu bilakatu** ziren **balea** arrantzari esker. Balea australak erditzera heldu ziren Bizkaiko Golkoko uretara. Barrandari batek horietarik bat ikusi orduko, arrantzaleak 8-10 metroko traineru arinetan hurbiltzen ziren balea arpoiaz jotzeko. Baleak hondartzara ekarri ondoan, tratatuak eta salduak ziren. Erdi-Aroan merkatu errexa zen eta marinela laster aberasten ahal ziren.

Erdi-Aro bukaeran, gero eta balea gutxiago izanik Bizkaiko golkoan, euskal arrantzaleek **Ternuaraino joan behar izaten zuten** arraina atxemateko. Mundu berriko kostaldea, Kanada eta Saint Laurent ibaiaren ahoa Kristobal Colonek baino anitzez goizago ezagutu zituzten.

XVgarren mende bukaera aldera, **balea ehiza handiak ez ziren lehen bezain errentagarriak** eta armadoreek beste iturri emankorrago batzu bilatu zituzten. Ipar Atlantikoan, garai hartan biziki preziatua zen arrain mota bat bazen : **bakailaoa**. Alabaina, erreki garraia eta kontserba zitekeen gaziturik eta idorturik. **Bakailao arrantza XVIIIgarren mende arte egin zen.**

Baina 1713an, Utrecht-eko Itunaren ondorioz, Frantziak Ternuako zati bat Inglesei utzi zien : arrantzak behea jo zuen orduan. Halabeharrez, arrantzale lohizundarrak bertze arrantza mota batzutan hasi ziren, hala nola **sardina arrantzan**.

XXgarren mendean, bolintxaren sartzeari esker (itzulikatzen den halako sare mota bat) biziki arrain gehiago atxematen zuten eta **lantegiak eraiki** behar izan ziren.

1950 urteetan, arrantza teknika berri bat sartu zen **beita biziarekin**. Orduan, **atun arrantza** nagusitu zitzaion sardina arrantzari eta Donibane-Lohizuneko portua **lehen atun portua** bilakatu zen. Gaur egun, arrantza anitz apaldu da.

Errekaren bestaldean, Ziburun, ikusten dugu etxe berezi bat flamandiar arkitekturako frontoia duena, Esteban d'Etcheto armadorearen egoitza. Esteban d'Etcheto merkataritzan ari zen Holandeseekin. **Maurice Ravel** musikaria eta konpositore handia etxe horretan sortu zen **1875eko martxoaren 7an**.

Gibelean, ikus dezakegu ere Ziburuko San Bixintxo elizaren ezkiladorre oktagonala.

- Bertze itsas aktibitate batek ere lagundu zuen Donibane-Lohizuneren ospea : **gerla lasterketa** deituak, bakarrik Frantzia atzerritar herri batekin gerlan zelarik egiten ahal zena. **Armadoreak** erregearen mandatuaren bidez : Frantziaren kontra gerlan zen herri baten edo herri horietako aliatu baten ikurra zeraman itsas-ontzi oro **erasotzen ahal zuen**. Horrela desberdintzen ahal ziren beren ber ari ziren itsaslapurretaz.
- Itsaslapur edo pirata ospetsu batzuek aipa ditzagun : Jean d'Albarade, Martin d'Argaignaratz, Jean Dornaldeguy Urruñarra, Michel Etchegaray, Martin Etchebaster, Johannis d'Etchepare, Michel de Moleres eta bere semea Pierre, Sopite, Coursic. Itsas-ontzi batzuen izenak : Le Labourd, le Saint-Jean, le Notre-Dame de Bordagain, le Petit Basque, la Basquaise.

3 – Errege-Alabaren edo Infantearen etxea

Orain, XVIIgarren mendeko armadore etxe eder horietarik baten aitzinean gaude : « **Joanoenia** ». Johannot de Haraneder armadore auzapezak egin zuen Luis XIIIgarrenaren estiloko etxe dotore hau. Veneziar jauregiak oroitarazten ditu. Bitrinaren gaineko frontoin triangeluarrean Haranederren armak ageri dira : itsas-aingurak gogoratzen du jabea armadorea zela.

Gaur egun, etxe hau **Errege-Alabaren** edo **Infantearen etxea** bezala ezagutua da. 1660an, Austriako Maria Teresa, Espainiako Errege-Alaba, bertan egon zen. Donibane-Lohizunera etorri zen Luis XIV. arekin ezkontzeko.

Ate nagusiaren gaineko aldean, izkribu bat bada hizki urreztatuetan marmolezko plaka beltz batean eta ezkerreko aldean Luis XIVgarrenaren itxura.

1854an, Napoléon IIIgarrenak etxe hau bisitatu zuen.

Ondean, « **San Martin baita** » etxea. Alexandre Saint-Martin, 1711n hiriko auzapez izan zenaren izena hartu du.

Orain **Mazarin karrikan** gaude. Lehen “rue de Mars” izena zuen. Ondotik, 1659-1660an « Pirinioetako Ituna » negoziatu zuen Mazarin kardinalaren izena hartu zuen. « *Chibau* » etxean bizi izan zen, gaur egun « *Ugaina* » etxeak ordezkaturia eta itsas-armada nazionalaren komandantearen egoitza dena.

Hiru kanoien etxea aipagarria da, kanoiak etxearen gainean agertzen baitira oraino. Karrikako 12garren zenbakian, 1690eko etxea eta bertze etxe batzuek armadore batzuenak edo jauneriarenak izan direnak, adibidez : « *Ornoaga* », Ziburun 1550az geroz ezagutzen den Larralde d'Ornoague familiarena.

Mazarin karrikako bigarrean, « *Granga Baita* ». Bertan egonak dira Napoleon Lehena, Soult mariskala eta Wellington ingles generala.

4 – Errepublika karrika

Lehen « Rue Montante » deitzen zen eta 1883an izen berria ezarri zitzaion (Frantzia, Errepublika 1870eko irailaren 4an aldarrikatu zen).

- Lehen zenbakian, “*Guidalodienia*” etxea ;
- eta 1 bis zenbakian, XVII. mendeko “*Uso xuriak*” etxea. Azken hau Monumentu Historiko bezala sailkatua da 1937tik geroz;
- zazpigarrenean “*Toki Ona*” etxea (1650koa),
- hamazazpigarrenean “*Eskerenea*”, hain segur ere hiriko etxerik zaharrena. Iduriz 1558an Espainiolek suntsitu ez zuten etxe bakarra. Berrikitan Monumentu Historiko bezala sailkatua izan da.
- Seigarrenean, « *Adam* » etxea, 1660az geroz makarroiak egiten dituen. Diote : « *Adam jaunak Gaxuxa bere zerbitzari ederrena eta erneena igorri omen zuela amandazko makarroi gozoz beteriko plater batekin Ama-Erreginarenean gana. Ama-Erreginak neska gaztea errezibitu zuen, makarroiak dastatu eta preziatu zituen. Bere seme Erregeak ere biziki gustukoak ukan zituen, bai eta bere andregaiak ere. Eskertzeko, Ama-Erreginak bere urrezko arrosarioa eskaini zion Gaxuxa politari. Honek bizi guzian atxiki zuen. »*

XXgarren mende hasieran, arrantzale familiak bizi ziren Errepublika karrikako etxeetan. Arrantzale horien emazteak karriketan oihuka ibiltzen ziren Donibaneko itsas-ontziek bildutakoa buru gainean ala eskorga batean zeramatela. **Kaskarotak** deitzen ziren. Lanaren ondotik, maite zuten etxe aitzinean kalakan aritzea eta jendetaz trufatzea.

Karrika honetako etxebizitza batean egon zen hamar urtez **Jean Diharce**, euskal olerkaria, « **Iratzeder** » izenordearekin ezagutua dena. 1920ean sortua, gazte gazterik hasi zen idazten. « **Biziaren olerkia** » eta « **Biziaren gudaldia** » liburu gotorretan bilduak izan dira haren poesiak, gehienak mistikoak, Iratzeder fraile beneditarra baita.

Iratzeder-en arrebak – Maddi Diharce andereñoak – 1942an agertzen zen « Aintzina » aldizkarian idazti artikulua « **Mari Kachkarot** » izenpetzen zituen.

5- Hondartza

Jacques Thibaud pasealekuan gaude. Bibolin joile ospetsuak (1880-1953) « **Zortziko** » etxea eraikiarazi zuen Baillenia auzoko Gorena karrikan.

Donibane Lohizuneko badiaren historia etengabeko borroka izan da : itsasoak emeki emeki denak jan eta higatu nahi baititu. Hastapenean, defentsa naturalek babesten zuten : Sokoako puntak ezkerrean, Santa Barbarakoak eskuinean eta Arthako itsas hondo sakonak erdian. Baina itsasoaren erasoaldien ondorioz, arroka horiek desagertu ziren. Uhin indartsuek gaur egungo hondartzaren lekuan zegoen « **La Barre** » auzoa babesten zuen duna erasotzen hasi ziren.

Uhinen lehen eraso **1670ean** gertatu zen. **1707an**, geriza pareta berri bat eraikitzen hasi ziren, 40 urtez eraginkorra izan zena. Baina **1749an** eta **1782an** itsasoak

oraingo hondartzaren tokian zegoen auzoa beretu zuen eta berrehun bat etxe suntsitu zituen, 1639an eraiki Serora Ursulinen komentua barne. Azken hondamendi horren ondotik, Luis XVIgarrenak eman dirutza bati esker, 160 metroko barradera bat eraiki zuten **1783tik 1788ra**, Sokoan eta Santa Barbaran. Hondartza gaineko azken pareta **1836an** baizik ez zen egina izan. **Napoleon IIIgarrena** Donibanen izan zelarik, herriko agintariak erran zioten nolako arriskuak baziren hiriarentzat eta honek hiru barraderak ordaindu zituen.

Bigarren Inperioaren garaian (1852-1870bitartean), Donibane-Lohizune bere aberastasunak baliatzen hasi zen : hondartzari eta itsasoari esker turismoa eta bainuetxeak garatzen hasi ziren

Manuel Sein zenaren etxetik hurbil baikara, **Xanpun** bertsularia gogora ekarri behar dugu. Biziki maite zuen pezoin honetan jartzea ezagunekin kalakan aritzeko. Berriki, haren izena eman diote karrika bati.

Garat karrika

Karrika eta plaza anitzek Euskal Herriko pertsonaien eta tokien izenak dituzte. Horrela, 1883an "Rue du Centre" karrika « Garat karrika » deitu zuten Dominique-Joseph Garaten omenez. Uztariztar hau « Convention »-eko deputatua izan zen eta Justizia ministroa 1792an. Ministro bezala, berak erran behar ukan zion Luis XVIgarren erregeari hiltzera kondenatua zela. Berak proposatu zuen ere euskal departamendu baten sortzea 1789an departamenduak sortu zirelarik. Mirabeau proiektu horren aurka borrokatu zen. Napoleon Lehenari euskal estatu baten egitasmoa ere aurkeztu zion...

Garat karrikako 8garrenean Dalbarade amiralea zendu zen etxea (1743-1819).

Ezkerrean, Saint-Jacques karrika, Donibaneko zaharrenetarik bat da. Oroitarazten du "La Barre » itsasoak suntsitu zuen auzoan zegoen Konpostelako beilarien ospitalea.

Ezkerreko aldean, Abbé Onaindia karrika. Bizkaitar apez hau, sortzez Markinarra, Espainiako gerla zibiletik ihes etorria zen eta parropiaren zerbitzuko 45 urtez egona da. Bere anaia Alberto, 1937an erbesteratu euskal gobernuaren informazio arduraduna zen, eta anbaxadore Vatikanon.

Eliza

- Kanpoko aldea

1186ko "Baionako kartularioan" idatzia da, XIIgarren mendean jadanik, toki honetan, otoitz gune bat bazela « *Sanctus Johannes de Luis* » deitua, gerlak medio, errea eta suntsitua izan zena. Gaur egun ikusten duguna, XVIIgarren mendeko bigarren zatikoa da. Herriko Etxea eraikia izan aitzin, Donibaneko Biltzarreko kideen bilkurak hemen egiten ziren.

Ate tapatua : errege-ezkontza denboran, eliza handitzen ari ziren ; aldare aitzintegia eta saihetseko kaperak ez ziren oraindik eraikiak. Ikusten dugun ate tapatu hori zen lehenagoko ate nagusia. Errege-erreginak eta gomita guziak elizara hortik sartu ziren. Bertze bi horma-zulo ikus ditzakegu oraindik. Sartzeko atearen gainean ziren eta segur aski saildu harriduriak bazituzten barnean. Ezkontza iragan ondoren, ate

horren tapatzea edo hormatzea erabaki zen bere kokapena ez zelakoan gehiago egokia. Bertze sartze angeluzuzena egina izan zen, 19garren mendean gotiko estiloan aldatua izan zena. Elizaren inguruak apaintzen dituzten hilerriak eta elizaren barnean lurtean direnak, lehenago elizaren inguruan ziren hilerriak dira.

Eliza ataria zatirik zaharrena da, eliza erromanoarena. Ezkila-dorre oktagonala dauka gainekaldean, nabigazioaren zaintzeko bide bezala baliatzen zen balaustra batekin.

Teila gorriekin egin teilatua XVIIIgarren mende bukaerakoa da.

Gaurregun tximistorratza bat dauka. Galerietara doazen kanpoko eskailerak 1750ekoak dira. Duela urte batzuek, tokiko ofiziale batek berritua du burdin forjatuzko eskudela.

- **Barneko aldea**

Eraikin honen berezitasuna da pieza bakarrekoa dela. Euskal estiloko nabea biziki handia da. Zurezko sabaiak itsas-ontzi irauli baten karina itxuratzen du. Horrek halako arintasun bat ematen dio, eta beraz, kargaren atxikitzeke ez da harrizko zutoinen beharrik izan.

Hiru estaietako galeriak gehituak izan ziren Euskal Herriko biztanleria azkarki emendatu zen garai batean. Iparraldeko elizen berezitasun bat da. Baionako apezpiku batek, XVIIgarren mendean, galdetu zuen Euskal Herriko eliza guzietan eginak izan zaitezten. Napoleon IIIgarrena bisitaz etorri zelarik, dirulaguntza bat eman zuen ziren bezala-bezala zaharberrituak izan zitezten. Meza denboran, gizonak galerietan ematen ziren eta emazteak behean. Etxeko anderea familiaren izenean brodatu kaderan jartzen zen.

Sabaiatik zintzilik dagoen itsas-ontzia Eugénie enperatrizak eskaini omen zuen, eskerrak emateko Badian hondoratze batetik salbatua izan baitzen. Itsas-ontzia kalamuzko soka batetik zintzilikatua da. Sokaren bihurtura hezetasunaren arabera aldatzen da. Aro txarra adierazten du branka ate nagusiari buruz zuzendua delarik eta aro ederra aldaerari buruz zuzendua delarik.

Organoa

Altzari eder hori, Brunel organo egile jaunak egin zuen 1659an. Geroztik, erregulariki eraberritua izan da. Chauvin jaunak osoki berritu zuen 1980an, eta organoa estreinatua izan zen André Ithurralde orduko jaun auzapeza bertan zegoela.

Paretan sartua den bataio-harriak XVIIIgarren mendeko estiloa du

1878ko prediku tokia

Prediku tokia zurezko panel zizelkatuz apaindua da. Paneletan Jondoni Batista eta lau ebanjelistak ageri dira : San Lukas, Jondoni Joani, San Mark eta San Matiu. Munstro hegaldunak erakusten dituen oinarri batean finkatua da. Gainean, San Migel arkanjelioa gaizkiaren sinboloa den dragoia garaitzen ikus daiteke.

Sahetseko kaperak

Ezkerrekoak Bihotz-Sakratuari eta San Joseperi eskainiak dira eta eskuinekoak aldiz Sakramendu Sainduari eta Ama Birjinari. Margoak Michel Etchegaray zaldunaren obrak dira. Magoen Adorazioarena 1727koa da eta Jean Restout artistak egina du.

Hau da eliza honetako maisulana. Oroitu behar da Epifania handizki ospatzen dela Donibanen. Urtero, haurrak beztitzen dira Mago jantziekin eta karrketan gaindi, prozesio bat egiten da, dena otoitz eta kantutik. Egun berean, neguko **Besta Berri edo Corpus Christi eguna** ospatzen da. Alabaina, udaberrian 3000 marinel baino gehiago itsasora joaten ziren eta ez zuten beraz **Besta Berri eguna** ospatzen ahal. Horregatik, apezpikuari baimen berezia galdetu zioten neguan ospatzeko, sasoin horretan ez baitzuten itsasora joaterik. Apezpikuak onartu zuen.

Erretaula

Hamazazpigarren mendean muntatua izan zen, xuxen errateko 1666tik 1670ra bitartean. Martin de Bidache Baionako enpresaburuak egin zuen. Estatuak edo sailak itxurak Akotzeko laborarien idi orgetan ekarri zituzten.

Barroko estilokoa da eta kontra-erreforma katolikoaren estiloan egin da. Funtzio didaktikoa zuen : biztanlegoaren ehuneko larogeia analfabetoa zen. Erdiko marra bertikalaren erdi-erdian, elizaren zaindaria den Jondoni Batista ageri da, bere gainean Ama Birjinaren zeruratzea, eta Jainko Aita betierekoa, eskua lurbira-globoaren gainean duela. Tabernakuluan ikusten dira Izpiritu Sainduaren sinboloa den usoa eta Seme gurutzefikatua, Trinitate Sainduaren adierazgarri.

Eskuineko aldean, Jondoni Petri, giristinotasunaren lehen aita saildua, San Leon, Baionako lehen apezpikua, martirioa, San Roch, izurria zutenen laguna, mirakuluz sendatu zena, egunero jatera ematen zion zakurraz lagundua, soinean dituela Konpostelara joaten diren beilarien ezaugarriak. Jondoni Jakobe karrikatik eta Chantacotik (Santiagotik eratorria) iragaiten den itsas bidea, Ur Hertsiko ibia dena.

Gambetta karrika

1883an Guilbeau-ren Herriko Kontseiluak "Karrika Handia"-ri "Gambetta karrika" izena ezarri zion, Errepublikazalea zendu eta urte bat beranduago.

Elizaren parean, "Gorriti Enea" Joachim Labrouche-ren jabegoa zen. 1808tik 1853ra hiriko auzapez izan zen eta karrika bati bere izena emana izan zaiola. Bertan, Joseph Bonaparte Espainiako erregea errezebitu zuen. 1813 urtearen bukaeran, Soult marexalak bere militar egoitza bertan finkatu zuen denbora batez.

Ezkerrean, Laffargue larruki-denda. Léon eta Jean-Baptiste Laffargue uhalgileak ziren, arras estilo berezia duten gerrikoak, zakuak eta zorroak egiten hasi aitzin. Deportatuak izan ondoren, Jean-Baptisten semeek lana segitu zuten.

Karrikako 52. zenbakian, Ramiro Arrue bizi zen. Bere margo anitz ikus daitezke Herriko Etxeko geletan. Karrika honen gaineko aldean, "Karrikatxar" iturria, Gurutzearen plazako iturria deitzen dena ere. Ura, Ducontenia iturritik dator, eta iturria, Labrouche auzapezak eraikiarazi zuen 1825ean.

Jose Antonio Agirreren oroitarria

Jose Antonio Agirre lehendakariaren omenez altxatu oroitarriaren aitzinean gaude. Jose Antonio Agirre "Eusko Alderdi Jeltzalearen" sortzailea den Sabino Arana Goiriren jarraitzailea zen. Euskadiko lehen lehendakaria izan zen. Euskadiren autonomia estatutua 1936ko urriaren 1ean onartu zuten Cortès-ek eta Agirre urriaren 7an hautatua izan zen lehendakari. Bilbo hartua izan zelarik 1937ko ekainaren 19an, Agirre Frantziara ihesi joan zen bere gobernuaren parte batekin. Erbesteratze horrek,

besteak beste, Donibane-Lohizunera, Parisera eta New-Yorkera eraman zuen. New-Yorken Columbiako Unibertsitateko historia erakaslea izan zen. Parisen hil zen 1960an eta Donibane Lohizunen ehortzia da. Donibanen pausatua da betirako eta martxoko azken igande guziz meza bat ematen da Aintzirako kaperan, bere heriotzaren urtemugakari. Bere obren artean, aipatzekoak dira : “Entre la Libertad y la Revolucion” (1930) eta “La Verdad de un lustro en el Pais Vasco”.

“Mende Berri” etxea

Telesforo de Monzon Olasoren etxea. Bergarako semea, Monzon Gipuzkoako deputatua zen eta 1936an Jose Antonio Agirreren gobernuko barne ministroa izendatua izan zen. Poeta eta teatrogilea zen. Bere obretarik batzu Donibane-Lohizunen idatzi zituen : “Menditarrak” (1958), “Hazparneko Anderea” (1966). Olerki bildumetan, “Gudarien eginak” (1947) aipatzekoa da, eta haren kantuek, Peio eta Pantxoa bikoteak eman dituzte, hala nola “Itziar-en semea”, “Lepoan hartu ta segi aurrera” eta beste asko. 1980an zendu zen.

-----0-----

Donibane-Lohizune beti atxikia izan da euskarari eta euskal kulturari. Gerla karlisten denboran, hego Euskal Herriko jende anitz bertan finkatu ziren. Donibandarrek eta iparraldeko Euskaldunek harrera ona egiten zieten. Sabino Aranak eta bere burasoek Bilbotik Baionara ihes egin behar ukan zuten. Sabinok, bere lehen jaunartzea Donibane-Lohizunen egin zuen 1875ean eta Baionako Saint-Louis de Gonzague kolegioan ibili zen. 1873an, “Le Courrier de Bayonne” kazetak erraten zuen **4 683 errefuxiatu** bazirela Donibane Lohizuneko kantonamenduan. Don Carlosen porrotaren ondoren, **10 000** gudari eta beren familiak ipar Euskal Herrian finkatu ziren.

1892an, “*Euskaldun fededun*” elkartearen besta ospatu zen abuztuaren 15ean. Martin Guilbeau, Euskalzaleen Biltzarreko idazkaria euskararen garapenaren aldeko langile suharra zen. Abuztuaren 15etik 22ra, Donibane-Lohizunen ospatu Euskal Ohiduraren bestak euskal ikasketen pizkundera markatu zuen. Ekitaldi ofiziala izan zen, babesle zituela De Foucaud jauna, Irakaskuntza Publikoko ministroaren ordezkaria eta Jauffret Baionako apezpikua. Egitarauan, desfilea *Zazpiak Bat* banderaren gibeletik Donibane-Lohizuneko Herriko Etxetik elizaraino joateko. Albert Goyenette auzapezak eta herriko kontseiluak ere desfilean parte hartu zuten, suhiltzaileek lagundurik. Kasinoan, hautetsien arteko topaketa : Urruñako, Sarako auzapezak, kontseilari orokorra, Gipuzkoako senataria. Arratsaldean, dantzak, bertsulariak. Ondoko egunetan, pilota partida, ikusgarria, mintzaldia “Euskaldunek historia bat ba ote dute ?” gaiaren inguruan, “Abraham” pastoralara Xiberutarrek emanik, eguneroko biziaren objektu erakusketa, altzari zaharren erakusketa, margoak, xistera...

Kaskarotak

Joseph Nogaret-en arabera (« St Jean-de-Luz des origines à nos jours », 1925) XVlgarren mendean finkatu ziren buhamiak edo ijitoak lirakeke, Espainiatik eta Portugaletik etorriak. Kanporatuak izateko mehatxu anitz ukan bazituzten ere, bertan

egon ziren. Bertze tokietan, beren nortasuna, bizimoduak eta lanbideak atxikitzen baldin bazituzten ere (hala nola saskigileak, galdaragileak, zaldi saltzaileak), Donibane-Lohizunen bertako jendeen ohiturak hartu zituzten eta arrantzan hasi ziren. Pixkanaka-pixkanaka bertze jendeekin nahasi ziren.

Philippe Veyrin ikerlariaren arabera, kaskarotak agoten eta buhamien arteko nahasketa batetik zetozen. Agotak ez ziren bertze herritarrekin nahasten, bakarrik beren artean ezkontzen ahal ziren. Jendeek uste zuten legenardunak zirela, horregatik baztertuak ziren eta debeku anitz pairatu behar ukan zituzten XVIIIgarren mende arte. Zurgin, arotz edo ehule bezala biziki trebeak ziren. Hori agertzen da ere Donibaneko eta Ziburuko parroketako erregistroetan.

Batzuen ustez, "kaska" (legenardunen azala) hitzetik heldu da. Bestalde, gaur egun "arotz" bilakatu den "arota" hitzak zurginen izendatzeko baliatzen zen eta kasik zurgin denak agotak ziren. "Kaskarot" hitza pejoratiboa zen eta irain bat bezala hartua zen.

Itzulpena : Euskal kultur erakundea – 2006ko urtarrila